

GIG 51

SALBATORE PINAKULU KARSTIKOA

BALIO INTRINTSEKOA: 3

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Salbatore mogote karstikoa pinakulu bakartu bat da, eta Debako pinakulu-motako karstean dago (GIG 43). Handi samarra da tamainaz: 240 metro ditu garaieran, eta haranaren hondoarekiko 160 metrokoa da garaiera-aldea. Goitik begiratuta guztiz biribila da pinakulua, eta 300 metro inguruko diámetro du.

Pinakuluaren barruan dauden konduktu karstiko horizontalek egiten dute hura interesgarri, batik bat. Barrunbe garrantzitsuenak Zelaietako kobazuloa, Urtiagako kobazuloa eta Urtiagako iturburu dira, eta haietako galeria horizontalek 2 maila desberdinetan daude bertikalean: goien dagoena itsas mailatik 150 metrora, eta behean dagoena, berriz, 110 metro ingurura, kontuan izanda haranaren oina 80 metro ingurura dagoela. Bai Zelaietako haitzuloak bai Urtiagakoak pisu edo maila nagusi bat dute 150 metrora, eta hain garatuta ez dagoen beste bat ere bai, 110 metrora; Urtiagako iturburu, aldiz, ondo garatutako galeria bat da, 110 metrora dago, eta Urtiagako kobazuloarekin elkartzen da.

Pisu horizontal horiek egonkortasun freatikoko garai batean sortuak behar dute izan, eta kostaldea zein gertu dagoen kontuan izanda (1 km), litekeena da itsas mailarekin lotuta egotea; itsas maila gaur egun baino gorago zegoen garai batean sortu izatea, alegia. Hori hala balitz, pisu karstiko bakoitzaren xehe-tasunezko azterketa bat egiteak aukera emango liguke maila freatikoa denboraren joanean zer abiaduratan jaitsi zen jakiteko, bai eta itsas mailan zer aldaketa izan ziren finkatzeko ere.

NOLA BERTARATU

Itziarko gainean Gi-3291 errepidea hartu behar da, Itxaspe auzorantz, eta gero, berehala, eskuinera egin behar da, Zelaieta Berri landa-etxera joateko. Handik oinez joan daiteke pinakuluaren oinera.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

Ikuspegi orokor bat izateko, Zelaieta Berri landa-etxea da lekuri onena; barrunbeak ikusteko, berriz, bertara joan behar da.



Pinakulu-motako Salbatore mogotearen ikuspegi orokorra; izen bereko ermita dago tontorrean.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X= 555192 m / Y= 4792358 m / Alt.=185 m



Pinakuluko galeria horizontaletako baten sarrera.